

Saritutako lan isila

Bilbo Handiko Saneamendu Sistema Orokorrengatik Iberdrola saria jaso du partzuergoak

HOGEITA HAMAR urteotan lan isil baina etengabea jardun du Bilbo Handiko Ur Partzuergoak. Nolanahi dela, eta lana isila izanagatik, ez da oharkabea geratu. Adierazi berri dugunaren lekuko da, esate baterako, erakunde horrek iazko urtearen hondarrean jaso zuen saria: Lehenengo Iberdrola saria, hain zuzen ere. Iberdrolaren Teknolôgi Institutuak uraren erabilera eta kudeaketan eraginiko berrikuntza teknologikoagatik saritu du Partzuergoa, erakunde horrek Bilbo Handia eskualdean abian jarritako Saneamendu Sistema Orokorrean oinarrituta.

Valentzian sariak banatzeko egindako ekitaldian Jose Miguel Elizagirre Partzuergoko ordezkariak adierazi zuenez, «ez zen batere lan erraza izan gure Saneamendu Sistema Orokorra abian jartzea: kontuan hartu behar da Bilbon aurretiaz indarrean zegoen saneamendu sistema 1900ean inauguratutakoa zela. Egia esan, mende hasiera hartarako oso sistema aurreratua zen: hiriko hondakin urak bi kolektoreren bidez jasotzea ahalbidetzen zuen».

Kolektoreak, berriz, aurrez aurre zeuden kokatuta: «Bata Ibar Ezkerrean zegoen, eta bestea

Ibar Eskuman, eta eurei esker hondakin urak hiriko punturik baxueneraino (Elorrietaraino) eramaten ziren. Behin Elorrietara helduta, handik itsasoraino, Galearaino bideratzen zituzten, hamabost kilometroko ibilbidea eginez. Hori zen, funtsean, Recadero Uhagon ingeniariak mende hasieran indarrean jarritako sistema». Sasoi hartan, ibaiaren emariak berak autoarazketa ahalbidetu eta ziurtatzen zuen.

Alabaina, 1900etik 1975era ez zen ezer egin sistema hobetzeko: bilbotarrek itsasadarra kolektore natural modura erabiltzen ja-

rraitu zuten eta horren egoera geroz eta okerrago bihurtuz joan zen, harik eta erabat larritu zen arte. 75 urtetan zehar Uhagonen egitasmoa ezarian-ezarian hondatuz eta narriatuz joan zen, guztiz baliogabe bihurtu arte.

Gauzak horrela, 1975ean hasi zen Bilboko Uren Partzuergoa Sanamendu Sistema Orokorren inguruko estreinako ikerketak sustatzen. 1967an sortutako Partzuergoak konpondua zuen ordurako arazo nagusia (ur hornikuntza arazoa, alegia), eta saneamenduaren erronkari eusteko moduan zegoen jada.

Egin beharreko ikerketa guz-

tiak eginda, 1984an ekin zioten lanari. «Eta hasi ere», Elizagirre jaunak Iberdrolaren Valentziako sari banaketan adierazi zuenez, «lagun dudan ingeniari frantziar baten ezkortasunari jaramonik egin ez geniolako hasi ginen lanean. Izan ere, ingeniari frantse sak zera: 'Epe motzeko plangintza egitea posible da, baina lanean epe motzera begira hastea ezinezkoa; eta lanari epe luzera begira ekitea posible da, baina epe luzerako plangintza egitea aldiz ezinezkoa'. Gure lanaren emaitzek argi utzi dutenez, ez ginateke inoiz ezkortasun horretan erori behar». X

Hauek ez dira
Gure uren
hobekuntza
nabaritzen duten bakarrak



Bizkaian, gero eta garrantzi handiagoa ematen diegu gure urei. Hemen, egiazko

aberastasuna, bizitza emateko gai diren gure naturazko baliabideetan dagoela dakigulako.

Horretara, 1.997an, Bizkaiko Foru Aldundiak, ziurra den inbertsio baten aldeko apostua

egiten du. Araztegi modernoak, kolektore berriak eta hornidurazko sare hobeak. 3.000

milioi pezetatik gora azpiegitura hidraulikoetan. Gure ibaiak berriro bizitzaz betetzea

lortzeko, edateko ura egunez egun eta baldintzarik onenetan gure etxeetaraino etortzea

bermatzeko inbertsio bat.

Tantaz tanta



Bizkaiko Foru
Aldundia

Diputación Foral
de Bizkaia